

Joan Mari Irigoien

BIZITZA JOLASA ERE BADA

Arkakusoa
barkakuso bihurtzeko
ez dohainik ez intentziorik duen heinean,
behin eta berriro egingo dizu zizt,
ahal izanez gero.

* * *

Gauza batzuk nekez ikasten ditugu;
beste batzuk, berriz, ziztuan.

“Nondik gatoz eta nora goaz?”, adibidez.

Gizakiok, pentsatzen hasi ginenetik gabilta
galdera horiei erantzun nahi eta ezinean,
belaunaldiz belaunaldi.
Txorta jotzen ikasteko, ordea,
aski dugu ixterraldi bat.

* * *

Aimar Irigoienek dauka, Aimarrek, ozazuna!

Nik daukat, nik, oxaxuna...

Baina kontsola nadin

gure aita zenak

—Oxaxunaren bazkidea hura ere—

behin batean esan zuenarekin:

“Oxaxuna duenak umorea baldin badu,
osasuna ere badu”.

* * *

Poeta-kantaria hil zen, bai,

baina lehengoan, hala ere,

berriro ikusi nuen

“Izarren hautsa” kantatzen,

Euskal Letebistan...

* * *

Soldadutzan ikasi nuen

zer zen cetme bat,

eta nire garunaren

eremu gazteleradunak

berehala egin zuen lotura:

cetme-cetmenterio.

* * *

Ez naiz iratxoa ez sorgina,

baina bai langile autognoa...

* * *

Benetako triskantza batek

ezinbestean behar du

traskantza bat osagarri,

tris-tras eta tris-tras...

* * *

1 FORMULA

Felipe Masa

Amasakoa balitz,
ez litzateke masatar hutsa izango,
baizik eta Felipe Masa Amasako.

Felipe Masa, baina, ez da Amasako,
eta masatar hutsa da, beraz,
nahiz eta bere ezaugarria ez den Masa,
Azelerazioa baizik...

* * *

Güell Parkea,

Famila Santuaren katedrala,
eta abar:
hura bai *gauditektoa*...!

* * *

Jirafen hizkuntzan
lepoepia idazten da,
ez epopeia...

* * *

“Umetan,

zuzenean edaten genian esnea
behiaren errapeetatik,
epel-epel”,
esan diot Olliri.

“Opel-opel...?”,
erantzun dit bilobak.

* * *

Jabegoa eta jabugoa:
aberatsaren
urrezko txanponaren
bi aldeak...

* * *

Albaitariari izen-behiturak eman,
eta halaxe erroldatzen ditugu
Altzako baserritarrok geure behiak...

* * *

Unibertsoaren sorreraren
seigarren egunaren
gauerdian,
Adan eta Eba eginda gero,
imajinatzen dut Jainkoa
bere azken sorkaria egiten:

“Egin dezadan zorria,
kolpe zorririk jo ez dezadan”.

* * *

“Utzi hurrei nigana etortzen”
esan zuen Kristok:
haurrak, baina,
Kristoren eskaintzari uko eginez,
Dragoi Bola
ikustera joan ziren...

* * *

Bizitza ez zait, oro har, gaizki joan,
baina hobeto joango zitzaidan, ausaz,
gurasoek *Happyfanio* jarri izan balidate...

Headuardo jarri izan balidate, berriz,
burutsuago izango nintzen,
zalantzarik ez ...
baina gauzak diren bezalakoak dira
eta dagoenarekin konformatu behar,
Joan Mari,
tonto arraioa...!

* * *

baNIatea

* * *

Beti pentsatu izan dut
Txirrita euskalduna izan ez balitz,
poloniarra izango zela,
Vertsoviakoa seguruenik...

* * *